



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 8a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Burlatako udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Burlatako udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Burlatako udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Burlatako udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p>III. Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.1. 2015eko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria (doikuntzekin) (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.2. 2015 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza (9. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">III.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua 2015eko abenduaren 31n (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.4. 2015eko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.5. Galera eta irabazien kontu bateratua, 2015eko abenduaren 31n (11. or.).</p> <p>IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Alderdi orokorrak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.5. Langileak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.7. Transferentzien ondoriozko gastuak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.8. Inbertsioak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.9. Aurrekontuko diru-sarrerak (21. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.10. Gorabeherak (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.11. Hirigintza (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.12. Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL (23. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.13. Ripaberri Desarrollo Urbano SL (likidazioan) (25. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.14. Erripagaña Desarrollo Urbano SL (26. or.).</p> <p>I. eranskina. 2015eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren memoria.</p> |
|---|--|

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Burlatako Udalaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.


Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Burlatako Udalari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Burlatako udalerrriak 2,12 km²-ko azalera du, eta 2015eko urtarrilaren 1ean, 18.336 biztanle dauzka.

Tokiko zerbitzu publikoak emateari begira, Udalak bi erakunde autonomo (Kirol eta Kultura Patronatua) eta hiru enpresa publiko sortuak ditu.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako irudi honetan ikusten da:



2015eko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2015-12-31n
Udala	14.022.195	12.596.005	171
Kirol Patronatua	2.058.063	2.052.356	30
Kultur Patronatua	898.149	887.419	5
Bateratzearen doitzeak*	-1.327.700	-1.327.700	
Bateratua, guztira	15.650.707	14.208.080	206

*Oroitidazkian, bateratzearen doitzea 1.334.224 eurokoa da, eta 6.524 euroko diferentzia ateratzen da, Patronatuak, oker kontabilizatutako horniduren hiru fakturari dagokiena; izan ere, Udaletik kobratzekoa zen diru-laguntza baten gisara kontabilizatuta daude.

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2015ean egin dituen ekarpena hau izan da:

Udalak erakunde autonomoei 2015ean egindako ekarpena

Entitatea	Zenbatekoa
Kirol Patronatua	606.537
Kultur Patronatua	721.163
Guztira	1.327.700

ENPRESEN SEKTORE PUBLIKOA.

2006an, Udalak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL sortu zuen. Kapital guztia Udala-rena da. Sozietate horrek ehuneko 51ko parte-hartzea du bitariko sozietate hauetan:

- Ripaberri Desarrollo Urbano SL, 2008an eratua. (Likidazioan)
- Erripagaña Desarrollo Urbano SL, 2010ean eratua.

Bi sozietate horietan, bazkide pribatua bera da. 2015ean, hiru sozietate horiek honako datu ekonomiko hauek izan dituzte (emaitzen kontua):

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Emaitzak ekitaldia	Langileak 2015-12-31n
Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL	207.654	363.224	-155.570	1
Ripaberri Desarrollo Urbano SL	794.982	1.012.474	-217.492	-
Ripaberri Desarrollo Urbano, SL	990.593	1.019.297	-28.704	-

Sozietateek udal bulegoetan dute beren egoitza soziala.

Udala, gainera, honako hauetako kide da:

a) **Iruñerriko Mankomunitatea**: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi zerbitzuak, bai eta ibai-parkearen kudeaketa ere.

b) **Hilarión Eslava Musika Eskolako Partzuergoa**, Burlatako eta Aurrabiako udalek 2010eko irailean sortua.

Zerbitzu horiek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Gastuak (2015)	Gastuak (2014)	2015-2014 aldea (%)
Eskualdeko garraio publikoa	248.155	321.544	-23
Ibai parkea	55.268	52.692	5
Musika Partzuergoa	291.676	266.676	10
Guztira	595.099	640.912	-7

Hurrengo taulan laburbilduta ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Zerbitzua	Udala	Merkataritza-sozietate osoa	Mankomunitatea Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errentamenduak	Merkataritza-sozietate mistoa
Administrazio-zerbitzu orokorrak	X					
Oinarrizko gizarte zerbitzua	X					
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	X					
0-3 urteko haur-eskolak				X		
Hirigintza	X	X				X
Lorategiak	X					
Garraio publikoa			X			
Uraren ziklo integrala			X			
Hiri-hondakinen kudeaketa			X			
Liburutegia-ludoteka	X					
Musika Eskola			X			
Kaleen eta Bideen mantentze-lanak	X					
Kirolak	X					
Kirol jardueren kudeaketa	X			X		
Udal-kiroldegiak	X				X	
Gizarte enplegu babestua	X					
Diru-bilketa exekutiboa				X		
Familien arretarako zentroa	X					
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa				X		

2015eko ekitaldiko aurrekontua 2011ko ekitaldiko aurrekontu luzatua da. Aurrekontu horren 2015erako luzapena 2015eko abenduaren 31ko alkatetza-dekretuaren bitartez onetsi zen.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin ditugun kontuen legezotasunari buruz daukagun iritzia eman dugu, eta hirugarren atalean, berriz, Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharra jaso ditugu (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da 2015eko ekitaldiko kontu orokorrari buruz egindako oroitidazkiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak Burlatako Udaleko alkateari eta alkate ohiari eman zitzaizkien ezagutzera, alegazioak aurkez zitzaizkien. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko eta haren menpeko enteetako langileei, txosten hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Burlatako Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako hirugarren atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailtza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptua, ezarpena eta mantentzea.

2015eko ekitaldiko kontuak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2016ko uztailaren 28an egindako saioan.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbaterokoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzi emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzi hau eratoritzen da.

II.1. AUDITORIAREN FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespen batekin

Burlatako Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta haren eguneratzea oraindik egin gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu finkatuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori, 2015eko abenduaren 31n, 102 milioi eurokoa zen.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen balizko eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi leiala erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2015eko ekitaldiko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala eta erakunde autonomoak)

III.1. 2015eko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA (DOIKUNTZEKIN)**Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	% Betetakoa	Kobrantzak	% kobrantza	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	3.737.400	0	3.737.400	3.885.606	104	3.530.938	91	354.668
2. Zeharkako zergak	1.400.000	0	1.400.000	518.860	37	493.453	95	25.407
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.864.128	725	2.864.853	2.775.383	97	2.612.635	94	162.748
4. Transferentzia arruntak	6.591.985	302.388	6.894.373	6.441.745	93	5.918.498	92	523.247
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	296.176	221.117	517.293	498.449	96	231.502	46	266.946
6. Inbertsio errealak besterentzea	1.192.798	0	1.192.798	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	621.360	114.999	736.359	68.323	9	0	0	68.323
8. Finantza-aktiboak	40.000	1.593.677	1.633.677	19.716	1	19.716	100	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	16.743.847	2.232.907	18.976.754	14.208.081	75	12.806.742	90	1.401.638

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	(%) Betetakoa	Ordaindutakoa	(%) Ordaintzeko	Ordaintzeko dagoena
1. Langileak	8.482.095	198.705	8.680.800	8.170.664	94	8.050.598	99	120.065
2. Ondasun arruntak	4.920.683	468.095	5.388.778	4.506.744	84	3.720.782	83	785.961
3. Finantza-gastuak	155.505	-4.500	151.005	6.704	4	6.704	100	0
4. Transferentzia arruntak	1.331.406	365.369	1.696.775	1.463.445	86	1.008.229	69	455.216
6. Inbertsioak	0	1.673.239	1.673.239	1.191.444	71	933.096	78	258.348
7. Kapital-transferentziak	0	24.000	24.000	0	0	0		0
8. Finantza-aktiboak	0	30.000	30.000	24.000	80	24.000	100	0
9. Finantza-pasiboak	873.372	-522.000	351.372	287.707	82	255.953	89	31.753
Guztira	15.763.061	2.232.907	17.995.968	15.650.707	87	13.999.363	89	1.651.344

III.2. 2015 EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2.015	2.014
+ Aitortutako eskubideak	14.208.081	15.140.802
- Aitortutako betebeharrak	15.650.707	14.832.533
Aurrekontu-emaizta	-1.442.626	308.269
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	1.016	138.434
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	19.192	0
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak	1.099.172	305.208
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaizta doitua	-325.278	475.043

III.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA 2015EKO ABENDUAREN 31N

Kontzeptua	2.015	2.014
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	4.374.713	5.173.468
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	1.401.338	1.895.201
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.730.253	1.708.981
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	2.749.485	3.154.820
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-1.506.364	-1.585.534
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	2.304.400	1.943.692
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.651.344	1.448.150
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	46.402	49.665
(+) Diru-sarreraren itzulketa	0	0
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	-31.909
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	606.653	477.786
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.260.654	3.083.359
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	4.330.966	6.313.134
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	8.324.681	9.396.402
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-3.993.715	-3.083.267

III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Kontua	Deskribapena	2015	2014
A	Ibilgetua	106.776.770	106.186.623
1	Ibilgetu materiala	75.245.379	74.933.975
2	Ibilgetu ez-materiala	285.473	279.205
3	Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	26.851.019	26.276.698
4	Herri-ondasunak	26.794	26.794
5	Finantza-ibilgetua	4.368.105	4.669.951
C	Zirkulatzaila	13.205.391	14.607.264
7	Izakinak	0	0
8	Zordunak	6.975.480	7.892.272
9	Finantza-kontuak	5.895.805	6.667.755
10	Aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0	0
11	Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	334.105	47.237
	Aktiboa, guztira	119.982.161	120.793.887

Pasiboa

Kon-tua	Deskribapena	2015	2014
A	Funts berekiak	116.285.201	116.623.317
1	Ondarea eta erresebak	90.938.706	90.794.204
2	Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekinak)	-148.779	324.000
3	Kapitaleko diru-laguntzak	25.495.273	25.505.113
B	Arrisku eta gastuetarako hornidurak	789.977	959.822
4	Hornidurak	789.977	959.822
C	Epe luzeko hartzekodunak	308.281	595.987
5	Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	308.281	595.987
D	Epe laburreko hartzekodunak	2.598.703	2.614.760
6	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.313.905	2.313.955
7	Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	284.798	300.805
	Pasiboa, guztira	119.982.161	120.793.887

III.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA, 2015eko ABENDUAREN 31n
Ekitaldiaren emaitza korrontea

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2015	2014	Deskribapena	2015	2014
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntzak (ekitaldiko hornikuntza)	0	0	39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (aurreko ekitaldiko hornikuntza)	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	2.260.645	2.243.801
61 Langile-gastuak	8.172.669	8.157.103	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	815.879	847.073
62 Finantza-gastuak	6.704	15.610	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	3.252.882	3.073.751
63 Tributuak	7.285	7.759	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	860.674	860.658
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	4.497.453	4.461.825	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0
65 Gizarte prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	7.748.873	7.667.334
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	291.310	1.342.038
67 Transferentzia arruntak	2.770.574	2.743.634	78 Bestelako diru-sarrerak	212.915	80.151
68 Kapital-transferentziak	20.571	13.924	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
69 Amortizazioetarako eta horniduretarako hornidura, ekitaldiko					
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	715.583	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	32.078	0
Guztira	15.475.256	16.114.806	Guztira	15.475.256	16.114.806

Ekitaldi bateratuaren emaitza

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2015	2014	Deskribapena	2015	2014
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	32.078		80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)		715.583
82 Ohiz kanpoko emaitzak (s. zorduna)			82 Ohiz kanpoko emaitzak (s. hartzekoduna)		
83 Balore-zorroaren emaitzak (s. zorduna)			83 Balore-zorroaren emaitzak (s. hartzekoduna)	0	
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	256.754	325.356	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	
89 Mozkin garbia osoa (s. hartzekoduna)		390.227	89 Galera garbi osoa (saldo zorduna)	288.832	
Guztira	288.832	715.583	Guztira	288.832	715.583

Udalaren eta patronatuen emaitza bateratua	-288.832
Udalaren Hirigintza Sozietatearen emaitza	-155.571
2015eko emaitza bateratua, guztira	-444.403

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, honako hauek jaso ditugu: kudeaketa arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015EKO ABENDUAREN 31N

Aurrekontua onesteko behar adinako gehiengorik ez dagoenez, 2015rako berriz ere luzatu zen 2011ko aurrekontua.

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 15.340.840 euroko gastuak eta 16.743.847 euroko diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 13 —hau da, 2.232.907 euro— handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 18.976.754 eurokoak dira aurrekontuetan eta 17.995.968 eurokoak, berriz, gastuetan. Aldaketa horiek eragina dute batez ere finantza-aktiboen kapituluan (diru-sarrerak) eta inbertsioen kapituluan (gastuak).

Aitortutako betebeharrak 15.650.707 eurokoak izan dira eta ehuneko 87ko betetze-maila izan dute.

Aitortutako eskubideak 14.208.081 eurokoak dira, ehuneko 75eko betetze-mailarekin; betetzearen ehuneko horren azalpenak dira ondasunen besterentzeari dagokion kapitulua ez dela guztiz bete eta diruzaintza-gerakinak txertatu izana.

Izaerari begiratuta, diru-sarreraren ehuneko 99 eta gastuen ehuneko 90 arruntak dira.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	52	Tributu bidezko diru-sarrerak	50
Bestelako gastu arruntak	38	Transferentziak	46
Inbertsioak	8	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	4
Finantza-zama	2	Zorduntzea	0
Guztira	100	Guztira	100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

Adierazleak	2015	2014	Aldea (%) 2015-2014
Aitortutako betebeharrak, guztira	15.650.707	14.832.533	6
Aitortutako eskubideak, guztira	14.208.081	15.140.802	-6
Gastuen betetzea (%)	87	83	
Diru-sarreraren betetzea (%)	75	80	
Ordainketak (%)	89	90	
Kobratutakoa (%)	90	87	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	14.147.556	14.083.451	0,46
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	14.140.852	14.067.841	0,52
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.191.444	385.056	209
Finantza-eragiketengatikoa gastuak (8. eta 9. kapituluak)	311.707	364.026	-14
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.120.042	14.817.852	-5
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	7.179.849	7.940.714	-10
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	68.323	310.452	-78
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	46	44	
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	51	56	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-1.150.636	659.797	-274
Aurrekontu-emitza doituia	-325.278	475.043	-168
Aurrezki gordina	-20.811	750.010	-103
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	294.410	371.136	-21
Aurrezki garbia	-315.221	378.874	-183
Zorpetze-maila (%)	2,09	2,45	
Zorpetze-muga (%)	-0,15	5,06	
Zorpetze-ahalmena (%)	-2,24	2,61	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-3.993.715	-3.083.267	30
Udalaren zor bizia	340.034	595.987	-43
Zor bizia biztanleko	19	33	-43
Diru-sarrera arruntzen gaineko zor bizia (%)	2	4	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	-16	1	

2015ean, Udalak ehuneko 6 gehiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 6 txikiagoak izan ditu.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko 0,46ko igoera izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 5 egin dute behera.

Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko 10 jaitsi dira.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa -1.150.636 eurokoa da, eta aurrekontu-emitza doituia, berriz, -325.278 eurokoa da.

2015ean, aurrezki gordina eta aurrezki garbia negatiboak izan dira: -20.811 euro eta -315.221 euro, hurrenez hurren.

Zorpetze-maila ehuneko 2,09 da, eta haren muga, berriz, ehuneko -0,15; horrenbestez, zorpetzea ehuneko 2,24 gaintu du.

Diruzaintzako guztizko gerakina 4.330.966 eurokoa da, eta ehuneko 31 egin du behera 2014koarekin alderatuta; hau da, 1.982.168 euro. Gastu orokorretara bideratutakoa -3.083.267 eurokoa da (2014an, -3.083.267 eurokoa zen).

Epe luzeko zor bizia 340.034 eurokoa da, eta ehuneko 43 jaitsi da 2014koarekin alderatuta. Zor hori, zeina biztanle bakoitzeko guztira 19 eurokoa baita, entitatearen diru-sarrera arrunt guz-

tien ehuneko 2 da; ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen diru-sarrera arrunten ehuneko 110eko gehieneko mugaren azpitik dago.

Burlatako Udalaren 2006-2015 aldiko diru-sarreraren eta gastuen bilakaera honako hau izan da:

Aitortutako eskubide garbien bidezko diru-sarrerak

Kap.	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1	Zuzeneko zergak	3.113.766	3.253.558	3.192.056	3.674.536	3.630.218	3.583.679	3.729.428	3.938.636	4.862.072	3.885.606
2	Zeharkako zergak	524.221	722.513	207.742	1.286.015	1.366.851	1.340.998	1.192.371	389.416	420.688	518.860
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.450.636	2.551.885	2.358.944	2.586.037	2.617.663	2.923.409	2.683.209	2.687.765	2.657.954	2.775.383
4	Transferentzia arruntak	6.548.718	6.854.656	7.157.318	6.897.153	7.483.316	7.269.520	6.601.976	6.243.496	6.364.856	6.441.745
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	245.789	302.896	276.915	289.779	306.148	306.595	643.192	856.715	512.282	498.449
6	Inbertsio errealen beste-erentzea	0	0	523.943	757.950	0	9.515.210	151.580	964.000	1.800	0
7	Kapital-transferentziak	2.593.850	2.173.212	3.428.249	2.460.306	3.717.025	1.098.668	1.001.606	122.216	308.652	68.323
8	Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	11.635	12.499	19.716
9	Finantza-pasiboak	11.428	10.964	8.196	15.694	21.837	13.630	10.039	0	0	0
	Guztira	15.488.408	15.869.684	17.153.363	17.967.470	19.143.058	26.051.709	16.013.401	15.213.879	15.140.802	14.208.081

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kapitulu	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1	Langile-gastuak	8.516.832	7.974.075	8.305.688	9.006.666	8.611.368	8.746.220	7.951.981	7.925.694	8.144.538	8.170.664
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.402.000	3.473.100	3.765.477	3.612.309	4.022.224	4.383.664	4.456.130	4.589.822	4.482.148	4.506.744
3	Finantza-gastuak	219.485	260.603	290.602	207.800	143.799	148.509	47.759	25.569	15.610	6.704
4	Transferentzia arruntak	674.995	994.804	1.031.494	1.408.323	1.189.605	1.341.013	1.324.497	1.332.791	1.441.155	1.463.445
6	Inbertsio errealak	3.530.924	2.939.884	2.155.135	4.416.599	2.963.964	2.734.907	547.957	1.650.691	371.762	1.191.444
7	Kapital-transferentziak	0	0	96.183	12.658	0	0	0	0	13.294	0
8	Finantza-aktiboak	13.300	11.800	7.000	27.700	13.361	12.800	21.799	8.840	8.500	24.000
9	Finantza-pasiboak	1.083.831	853.932	830.793	833.727	859.834	873.261	537.830	370.813	355.526	287.707
	Guztira	17.441.367	16.508.198	16.482.372	19.525.782	17.804.155	18.240.374	14.887.953	15.904.220	14.832.533	15.650.707

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2015eko diru-sarrerak txikiagoak dira 2006koak baino, eta kapital-transferentziak nabarmen jaitsi dira, inbertsioetan egindako gastuen beherakadaren ondorioz.

2014arekin alderatuta, nabarmenezkoa da zuzeneko zergen jaitsiera, zeren eta 2014an nabarmen hazi baitzen lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergak, eraiki berria zen Erripagaña eremuan egindako eskualdaketen ondorioz.

Gastuei dagokienez, 2009ra arte igotzen joan dira eta urte horretatik aurrera, berriz, jaisten. 2015ekoak 2006koak baino txikiagoak dira. Beherakada hori zor zaio, funtsean, inbertsioengatikoko gastuetan aldi horretan gertatutako jaitsierari.

Nabarmendu behar dugu 2015eko langile-gastuak 2006koak baino 346.168 euro txikiagoak direla, eta gauza bera gertatzen dela gastu finantzarioekin ere, zeinak 2015ean oso txikiak izan baitira, aldi horretan zorra amortizatu delako.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2015era.

Adierazlea	2015	2011	Aldea (%) 2015-2011
Zorpetze-ahalmena	% -2	% -0,5	-585
Inbertsio indizea	% 8	% 15	-49
Gastu arrunta biztanleko	772	803	-4
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	392	431	-9

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2015era inbertsioek ehuneko 49 egin dute behera. Biztanle bakoitzeko gastu arruntak ehuneko 4 jaitsi dira. Aldi berean, biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko 9 egin dute behera, eta zorpetze-ahalmenak negatiboa izaten jarraitzen du, aurrezki gordina negatiboa delako.

Horrenbestez, amaierako laburpen gisa esan daiteke Burlatako Udalak zorra eta biztanle bakoitzeko gastu arrunta jaitsi dituela; halere, gastuari eusteko eta diru-sarrerak handitzeko politikak bultzatu behar ditu, aurrezki garbia eta diruzaintza-gerakinak positiboak izan daitezzen.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren bete-zea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez:

Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitza negatiboa da, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	2015
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-1.150.635
Diru-sarreen bidezko doikuntzak	114.187
Finantzaketa-beharrak	-1.036.448

Udalaren oroitidazkian, honako hau aipatzen da:

“Nahiz eta itxuraz emaitza izan -1.036.448 euroko finantzaketa-beharra dagoela, finantza-egonkortasunaren printzipioa bete egiten da, zeren eta ez baita egiturazko desoreka bat sortzen, kontuan hartzen badugu 2015ean zehar guztira 1.191.444 euroko inbertsioak bete direla eta 20.571 euroko kapital-transferentziak egin direla.

Kapital-gastu horiek ia guztiz bat datoz atxikitako baliabideengatiko diruzaintzako gerakina-rekin finantzatu diren aurrekontu-aldaketekin.

Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria 176.264 euro handiagoa da 2014ko ekitaldikoa baino, baimendutako aldearen tasaren ondorioz handitu baita; horrenbestez, gastuaren araua ez da bete:

Kontzeptua	2014	2015
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	14.468.507	15.339.000
Inbertsioak besterentzea	-1.800	0.
Zorpetze-interesengatiko doikuntzak	-11.650	-1.766
Funts finalistekin finantzatutako gastuak	-2.098.353	-2.643.629
Gastu zenbakarria	12.356.704	12.693.605
BPGaren erreferentziako tasa	1,3	
2015eko gastu zenbakarria	12.517.341	

Araudiarekin bat eta ez-betetze horiek kontuan hartuta, Udalak plan ekonomiko-finantzario bat egin behar du, ezarritako helburuak betetzeko bidea emanen duena.

Finantza-iraunkortasunaren araua: 2015eko abenduaren 31ko zor bizia 340.034 eurokoa da. Zenbateko horrek 2015eko ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 2,4 egiten du. Diru-sarrera horiek 14.120.042 eurokoak izan dira, eta zor biziaren muga, berriz, diru-sarrera arrunten ehuneko 110ekoa da.

IV.3. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honek 2014ko ekitaldiari buruz emandako txostenari dagokionez:

a) Honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Plantilla organikoa Udalaren benetako langile-premietara egokitzea.*
- *Udalarentzako diru-sarrerak ekar ditzaketen jardueren (lizentziak, tasak...) gaineko kontrol-eta ikuskatze-prozedurak ezartzea.*
- *Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L. eta Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. sozietateei buruzko datuak kontu orokorrean jasotzea eranskin gisa.*
- *Burlatako Udalaren kontu orokorra dagokion datan onestea.*
- *Udal-ondasunak (jabari publikokoak, ondarezkoak eta herri-ondasunak) eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*
- *Erakunde autonomoen estatutuak osatu eta gaurkotzea eta erakunde horien autonomia-maila eta Udalaren kontrola islatzea.*

b) Indarrean jarraitzen dute txostenaren ataletan azaltzen diren gomendioek.

IV.4. ALDERDI OROKORRAK

Alkatetzaren 2014ko abenduaren 31ko Dekretuaren bidez 2015erako luzatu zen aurreko ekitaldiko aurrekontua, 2011ko irailaren 8ko osoko bilkuran onetsi zena.

Burlatako Udalaren kontu orokorra 2016ko uztailaren 28ko osoko bilkuran onetsi da.

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Erakunde autonomoak beren estatutuaz daude araututa; estatutu horiek, ordea, eguneratzeko premia handia dute. Eguneratze horretan erakunde horien benetako autonomia-maila eta Udalak beren jardueraren inguruan dituen kontrol-mekanismoak zehaztu behar dira, besteak beste.

Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2015eko fakturarik, 2016ko aurrekontuari egotzi zaionik.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen dituela hornitzaileriei ordaintzeko epeak, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean eta Merkataritza-eragiketetan Berankortasuna Eragozteko Neurriak ezarri zituen 15/2010 Legean ezarritakoak. Egiatzatu da, gainera, Udalak 2015ean ez duela inolako zenbatekorik ordaindu arrazoi horrengatik berandutza-interesengatik.

Udalak, 2015eko abenduaren 31n, 340.034 euroko epe luzeko zorra dauka. Azken maileguren muga-eguna 2018ko ekainaren 30a da. Honako hau da egiteko dauden amortizazioen taula:

Urtea	Amortizazio-taula
2016	257.043
2017	76.366
2018	6.625
Guztira	340.034

Udala, 2015eko egintzen ondorioz nahiz aurreko ekitaldietatik heldu direnen ondorioz, zenbait prozedura judizialetan dago sarturik, baina haien kuantifikazio ekonomikorik ez dugu.

Gure gomendioak:

- *Urteko aurrekontua indarrean dauden legeetan ezarritako epeetan onetsi behar da, Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariarako tresna gisa erabili ahal izan dadin.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotzea eta onestea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*
- *Udal-ondasunak (jabari publikokoak, ondarezkoak eta herri-ondasunak) eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea.*
- *Erakunde autonomoen estatutuak osatu eta gaurkotzea eta erakunde horien autonomia-maila eta Udalaren kontrola islatzea.*

IV.5. LANGILEAK

Langileen atalaren gastu bateratua 8.170.664 eurokoa da; hau da, 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 52 eta gastu arrunten ehuneko 58.

2014ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko bat handitu da, honako xehetasun hauen arabera:

	Aitortutako bete-behar garbiak, 2015	Aitortutako bete-behar garbiak, 2014	2015-2014 aldea (%)
Goi-karguak	213.689	291.821	-27
Funtzionarioak	2.551.655	2.493.288	2
Lan-kontratudun finkoak	896.615	912.688	-2
Aldi baterako lan-kontratudunak	1.843.548	1.714.310	8
Gizarte-zamak	2.665.156	2.732.431	-2
Langileak, guztira	8.170.664	8.144.538	1

Luzatutako aurrekontuarekin bat, plantilla organikoak 175 lanpostu dauzka. 83 lanpostu hutsik daude, eta 71n behin-behineko langileak ari dira. Horrenbestez, 163 lanpostu daude beteta. Honako hauek dira xehetasunak:

Plantilla organikoko langileak	Udala	Kirol Patronatua	Kultur Patronatua	Guztira
Bitarteko langileak - Izendapen askea	1	0	0	1
Funtzionarioak eta administrazio-kontratudun langileak	104	19	4	127
Lan-kontratudunak	23	11	1	35
Guztira	128	30	5	163

Plantilla organikoa 2011tik onetsi ez bada ere, 2015-01-16ko 10. NAO n behin betiko argitaratu zen 2014ko abenduaren 4eko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsitako plantilla organikoaren aldaketa bat, eta haren bidez Kirol Patronaturako zerbitzu anitzetako langileen hamar lanpostu sortu ziren. Lanpostu horiek hutsik daude eta behin-behineko kontratuekin betetzen ari dira.

Kontuan hartu beharra dago kapitulu horren barruan sartzen direla Nafarroako Gobernuaren hainbat programaren bidez diruz lagundutako aldi baterako langileak (gizarte enplegu babestua, interes orokorreko obretarako eta zerbitzuetarako eskulana, lantegi-eskola eta abar).

2015eko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 206 pertsonak egiten zuten lan, 2014an baino 5 gutxiago. Hona xehetasunak:

Kontratu mota	Langile kopurua	Guztizkoaren gaineko %
Lan-kontratudun finkoak	31	15
Aldi baterako lan-kontratua	90	44
Montepioa	13	6
Funtzionarioa	72	3
Guztira	206	100

Udaleko langileak arlo hauei atxikita daude:

Lan arloen araberrako atxikipena	Guztira
Administrazioa (Orokorra, Ekonomikoa eta Hirigintza)	25
Polizia	35
Gizarte zerbitzuak	29
Gizarte sustapena (Hezkuntza, Gazteria, Euskara, Liburutegia eta Ludoteka).	11
Obrak eta zerbitzuak	71
Kirolak	30
Kultura	5
Guztira	206

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta lan-harremanaren kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla.

Gomendatzen dugu plantilla organikoa onestea eta hura premia errealean arabera egokitzeko azterketa-prozesua osatzea.

IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 4.506.744 euro egin dute 2015ean, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 29 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 32 da. 2014. urtearen aldean, ehuneko bat egin du gora.

Kapitulu honetako gastuen betetze-maila, eta 2014ko ekitaldian izan zenarekiko alderaketa ondoko taula honetan adierazten da:

	2015	2014	Aldearen %, 2015/2014
Errentamenduak	309.103	297.560	4
Aseguruak	72.538	72.453	0
Kanpoko zerbitzuak	1.065.186	1.700.754	-37
Mantentze-lanak	690.210	1.022.679	-33
Hornidurak	2.362.618	1.376.137	72
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	7.088	12.564	-44
Guztira	4.506.744	4.482.148	1

2015ean lizitatutako ondorengo kontratazio-espeditenteak aztertu ditugu, kapitulu horri "Hornidura eta Laguntza" atalean egotzitakoak (eurotan emandako zenbatekoak dira, BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZa barne)	Zenbat lizitatuak	Esleipenen diru-kopurua BEZa barne
Tributu-objektuei buruzko berrikuspen-plana	Laguntza	Europar Batasunean publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	36.300	3	36.300
Haur parkeak	Hornidura	Europar Batasunean publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	46.189	1	46.189

Azterketa horren eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, gastuak justifikatuta daudela, behar bezala kontabilizatu direla eta egokiro izapidetu direla egiaztatu da, eta ez dela aplikatzekoa den araudiaren urratze larririk ikusi; honako hauek dira salbuespenak:

Kultura patronatuko laguntza teknikorako eta horniduretarako kontratu batzuetan indarraldia amaitu da; horrenbestez, berriz lizitatu beharko liriteke.

Gomendatzen dugu kontratua amaitua duten kontratazioak lizitatzea.

IV.7. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntengatiko gastuak 1.463.445 eurokoak izan dira. Ekitaldiko gastu guztien ehuneko 9 egiten dute, eta eragiketa arrunten ehuneko 10.

Honako hau da transferentzia arruntengatiko 2014ko eta 2015eko gastuak alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

	2015	2014	Aldea (%) 2015/2014
Toki entitateei	291.676	266.676	9
Mankomunitateei	303.423	374.236	-19
Familiei	528.872	433.197	22
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	339.474	367.046	-8
Guztira	1.463.445	1.441.155	2

Toki entitateentzako transferentziak Hilarión Eslava Musika Eskolako transferentzietan dagozkie.

Mankomunitateentzako transferentziak Iruñerriko Mankomunitateari egindako transferentzietara dagozkie, eskualdeko garraioa eta ibai-parkea finantzatzeko.

2014. urtearekin alderatuta, gastu hauek ehuneko bi egin dute gora, eta nagusiki mankomunitateentzako diru-laguntzen kontu-saila beheratu da.

Honako hauek dira 2015ean emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Eskola jantokia	331.744
Kirol elkarteak	136.554
Elkarteentzako diru-laguntzak	20.625
Nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak	49.913
Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak	62.747
Ikaskuntzarako laguntzak	30.790
Burlatako Musika Bandarekiko hitzarmena	16.719

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, gastua justifikatuta dagoela eta zuzen kontabilizatu dela, araudi indarduna arrazoizko eran errespetatuz.

IV.8. INBERTSIOAK

2015. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioak 1,7 milioi eurokoak ziren, eta haien ehuneko 71 bete da: 1,2 milioi euro; hau da, ekitaldian aitortutako betebeharraren guztien ehuneko 8.

Honako hauek dira 2015ean egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	zenbatekoak. BEZa
Kale Nagusiko 26. zenbakiko lurzatia urbanizatzea	301.230
Elizgibela Kirol-instalazioen erreforma	70.979
Etxebizitzak eta orubeak, UE S-24	489.662
Hilarión Eslava Ikastetxeko obrak	43.650
Ermitaberri Ikastetxe Publikoko patioaren estalduraren erreforma	64.449

Inbertsio hauek aztertu dira, bai eta 2015ean esleitutako honako obra-espediente hauek ere:

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa BEZa barne	Zenbat lizitatuak	Esleipenaren zenbatekoa, BEZa barne
Elizgibela instalazioen erreforma	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua	69.065	2	64.348
Ermitaberri Ikastetxeko patioaren estaldura	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua	66.212	3	57.475
Kale Nagusiko 26. zenbakiko urbanizaziotik egiteke zegoen obra	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua	240.206	3	206.296

Egindako azterketaren arabera, egoki errespetatu da aplikatzeko den araudia, eta kontabilizatutako gastuak zuzenak dira.

IV.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubideak 14,2 milioi eurokoak izan dira; ehuneko 99 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (7,2 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (6,4 milioi eurokoak) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketetan, nabarmendu behar dira administrazio orokorren transferentziak (68.000 euro 2015eko ekitaldian eta 309.000 euro, berriz, 2014koan).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 75ekoa izan da.

2014. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 6 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2015/2014
	2.015	2.014	
1. Zuzeneko zergak	3.885.606	4.862.072	-20
2. Zeharkako zergak	518.860	420.688	23
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.775.383	2.657.954	4
4. Transferentzia arruntak	6.441.745	6.364.856	1
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	498.449	512.282	3
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	14.120.042	14.817.852	-5
6. Inbertsioen besterentzea	0	1.800	
7. Kapital-transferentziak	68.323	308.652	-78
8. Finantza-aktiboak	19.716	12.499	58
9. Finantza-pasiboak	0	0	
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	88.039	322.951	-73
Diru-sarrerak, guztira	14.208.081	15.140.802	-6

Jaitsieraren arrazoia da zuzeneko zergak (I. kapitulua) behera egin dutela, eta bereziki lurra-
ren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren ondorioz. Izan ere, 2014an 1,3 milioi eurokoa da, eta
2015ean, berriz, 0,3 eurokoa; horrenbestez, ehuneko 78 jaitsi da. Diru-sarreraren gutxitze horren
arrazoia da 2014. urtea berezia izan zela lurra-
ren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioei dagokienez, zeren eta 2014an Erripagañako esparruan egindako eskualdaketek nabarmen egin
baitzuten gora, etxebizitzak eraiki berritan.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak (zuzenak eta zeharkakoak)	DRN 2015	DRN 2014	Aldearen %, 2015/2014
Lurra- ren kontribuzioa	2.390.557	2.318.014	3
Ibilgailuak	860.674	866.181	-1
Lurra- ren balio-gehikuntza	290.910	1.342.145	-78
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	343.465	335.732	2
EIOZa	518.860	420.688	23
Guztira	4.404.466	5.282.760	-17

Zergen bidezko diru-sarrerak, guztira, ehuneko 17 jaitsi dira: EIOZaren igoyerengatiko
ehuneko 23ko igoyeraren eta lurra-
ren balio-gehikuntzaren ehuneko 78ko jaitsieraren artean daude.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak agintzen dituen tasa ertain-altuen artean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,286	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	12	8,0 - 20,0
5 urte bitarte	3	2,2-3,3
10 urte bitarte	2,9	2,1-3,2
15 urte bitarte	2,7	2,0-3,1
20 urte bitarte	2,7	2,0-3,1
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5

Tasak ez dira 2015etik aldatu

Diru-sarrereren aurrekontu bateratuko kontu-sailen lagin baten gainean egindako azterketatik ondorioztatu dugu, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, nahiz eta, aurreko txostenetan adierazten genuen bezala, soilik egiazki kobratutako isunen aurrekontuari egozten zaizkion.

Gomendatzen dugu isunak kudeatzeko prozedura osatzea, kobratzeko dauden zenbatekoei dagokienez.

IV.10. GORABEHERAK

Ebazteko zain dauden zenbait espedienteren zenbatekoa zein den ez dakigu. Horietatik, nabarmendu behar dugu Plan Orokorreko N-12 unitatea birzatzitzeko proiektuari dagokiona, eta, gainerako udaletan bezala, lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioaren aurka aurkeztutakoak.

IV.11. HIRIGINTZA

Burlatako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, "Hirigintza, Ingurumen, Obra eta Zerbitzuak" arloaren bidez; sail horri honako langile hauek daude atxikita: arkitekto bat, aparejadore bat eta bi ofizial administrari. Langile horiek, gainera, obretan egindako inbertsioak hartzen dituzte beren gain.

Arlo honetan ez dago kanpoko aholkularirik, Ganasa enpresak ingurumen-alderdiei buruzko txosten puntualak egiten baditu ere.

Hirigintza kudeatzeko finkatutako prozedura batzuk badaude, eta egiaztatu egiten da arau indardunak egoki betetzen direla.

Burlatako Udalaren Antolamendu Plana 1991n onetsi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen —2006ko apirilera bitartekoa— indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko.

2005eko ekainean, Udaleko Osoko Bilkurak Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) onetsi zuen, eta Nafarroako Gobernuari igorri zion. Dena den, agiria alkateak berak erretiratu zuen 2006ko azaroan. Gero, Udaleko Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 31ko bilkuran, Lurraldearen Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE) berri bat onetsi zuen. Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak onetsi zuen 2012ko martxoaren 30ean. Data berean, udal planaren berrikuspenari buruzko alde aurretiko hitzarmen bat sinatu zuten Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eta Burlatako Udalak.

Udaleko Osoko Bilkurak, 2014ko maiatzaren 29an, hasiera batez onetsi zuen udal plan orokorra eta ingurumen eraginaren azterlana, haren osagai gisa, eta jendaurrean jarri zituen 2014ko azaroaren 30era arte.

2015. urtean, udal plan orokorraren Barne Jarraipenerako Batzordearen bilera bakarria egin zen (2015eko martxoan), zeren eta udal batzako zinegotziek jo baitzuten egokia zela horri

buruzko erabaki oro atzeratzea maiatzean egitekoak ziren udal hauteskunderen ondorengo udalbatza berria eratu arte. Udal Plan Orokorren behin-behineko onespenerako lanei ez zaie berriz ekin 2016ra arte.

Gaur egun, Udal Plan Orokorren Jarraipenerako Batzordearen zenbait bilera (barnekoak eta kanpokoak) egin ondoren, aurkeztutako alegazioei erantzuteko eta kanpoko txosten sektorialetan eta Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak emandako txosten orokorrean ezarritakoa dokumentuari gehitzeko fasean gaude. Aurreikusita dago udal plan orokorraren dokumentuari 2016ko laugarren hiruhilekoan ematea behin-behineko onespena.

2015. urtean zehar, zortzi xehetasun-azterlan onetsi dira behin betiko, guztiak ere arkitektura oztopoak kentzeari buruzkoak, eta 280 hirigintza-lizentzia eman dira.

IV.12. BURLATAKO UDALAREN HIRIGINTZA SOZIETATEA SL

2006ko otsailean, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL sortu zen, 1,8 milioi euroko kapital sozialarekin eta 664.557 euroko jaulkipen-primarekin. Burlatako Udalak berak jarri zituen diru kopuru horiek osorik, diru horretan baloratutako lursail baten lagapenaren bitartez.

Sozietate horren xedea da Udalaren ekintzak eraginkorrak izatea hiriaren birgaitzea bultzatzeko, etxebizitzak eta beste eraikin batzuk sustatzeko, lurzorua urbanizatzeko, egoera txarrean dauden hiri-eremuak zaharberritzeko, eta, orobat, orube eraikigarrien eta horietan eraikitzen diren eraikinen salmentako eta errentamenduko prezioak murriztea.

Burlatako Udalak bi lursail-bloke laga zizkion dohainik Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari, Erripagañako Udalez Gaiindiko Plan Sektorialaren birzatatze-proiektuaren ondorioz, haiek hirigintzaren aldetik kudea zitzan eta etxebizitzaren sustapena egin zezan:

Etxebizitza-sustapenerako helburuak betetzeko, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak bi deialdi egin ditu lagapen horietako bakoitzerako, beste bazkide pribatu batekiko bitariko sozietateak eratzeko asmoz, etxebizitza babestuak sustatu eta eraikitzeko; horrek lurzatiak salmenta bidez besterentzea eskatzen zuen, gainera, inplizituki. Sozietate misto horiek dira “Ripaberri Desarrollo Urbano SL” —2008ko ekainean eratua— eta “Erripagaña Desarrollo Urbano SL” —2010eko martxoan eratua—.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak bi sozietateetan duen partaidetza ehuneko 51koa da; bazkide pribatuak —bi sozietateetan bera da, Nasipa, S.L.—, berriz, gainontzeko ehuneko 49 dauka. Burlatako Udaleko Hirigintza Sozietateak ez du kontu bateraturik aurkeztu.

Gainera, Udalak munta handiko inbertsioak egitea enkargatu dio Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateari, nahiz eta azken horrek langile bakarra duen, eta, gainera, proiektu horien kontrola eta gainbegiratzea ere haren esku uzten du, bai eta haien etorkizuneko balizko ustiatze ekonomikoa ere.

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietateak eginkizun berriak hartu ditu bere gain. Horri dagokionez, Burlatako Udalaren Osoko Bilkurak, 2014ko abenduaren 18an, honako erabaki hau hartu zuen:

“a. Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea Burlatako Udalaren tresna izaerako ente gisa aitortzea..

b. Ezartzea ezen, estatutuen 3l. artikuluan ezarritako xedeen arabera, Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen jarduketa-esparruaren zatia dela, udal etxebizitzaren kudeaketarako eta administraziorako tresna-izaerako ente gisa. Horrek honako jarduketa material hauek ekarri beharko lituzke berarekin:

- *Araudia egiteko lanak: ordenantza, baremoa... onespena emateko kasuko udal organoari aurkeztu beharrekoak.*
- *Sarbide-zerrendak sortzea; udal organo eskudunei igorri beharko zaizkie kontrolatu eta onets ditzaten.*
- *Herritarrari arreta eta informazioa ematea.*
- *Alokairu kontratuak idaztea (udal organo eskudunak sinatu beharko ditu), bai eta bisatuen izapideak ere.*

- *Fidantzen eta abalen gaineko kontrola. Kontu-hartzaitzari eta Udalari horien berri emanen zaie.*
 - *Udalaren kontu korranteetan sartzekoak diren alokairuko ordainagiriaren kudeaketa materiala, Udalaren diruzaintza pean.*
 - *Hornigaien alden, baje eta lagapenen gaineko kontrola.*
 - *Etxebizitzaren ikuskatzea (Udalaren obra zerbitzuarekin koordinatuta).*
 - *Erkidegoen administrazioa.*
 - *Udal etxebizitzaren kudeaketatik heldu den beste edozein jarduketara.*
- c. Erabaki hau Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.*

Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SLren urteko kontuak, 2015. urteari dagozkionak, kanpoko profesional batek ikuskatu zituen, eta bere aldeko iritzia eman zuen.

Haren ondare garbia 13,8 milioikoa zen 2015ean, eta ez du epe luzeko zorrik. Maniobra-funtsa positiboa du, 4,67 milioi eurokoa.

2015ean, 499.275 euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, 47.848 euro langile-gastuei dagozkie, 306.962 euro amortizazio-gastuei, 51.760 euro hornikuntzei eta 92.705 euro, azkenik, bestelako gastuei. 2015eko diru-sarrerak 324.063 eurokoak izan dira; horietatik, 186.396 euro jarduera nagusiari dagozkio; 55.032 euro ustiaketaren beste diru-sarrerara batzuei, eta 82.634 euro, azkenik, diru-laguntzen egozpenari.

Ustiaketaren 2015eko emaitzak 175.247 euroko galerak ekarri ditu. Diru-sarrerara eta gastuak finantzarioak gehitu ondoren, amaierako emaitza 155.571 euroko galera da.

2006ko uztailaren 3ko enkarguan, Burlatako Udalak agindu zuen Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL (pertsona bakarreko sozietatea) izan zedila Erripagañan Udalak dituen lurzatiaren urbanizazio-kuotak ordainduko zituen. 2014ra arte, ordea, Burlatako Udalak ordaindu behar zituen kuota horiek, baina urte horretatik aurrera Udalak aldatu egin du 2006ko enkarguari buruz egiten duen interpretazioa; izan ere, aurrerantzean Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL (pertsona bakarreko sozietatea) izanen da zuzenean urbanizazio-kuotak erreklamatu dizkiona lursailen etorkizuneko erosleei. Egitate horri dagokionez, ondare garbiaren aurka erregularizatu dira aurreko ekitaldietan ordaindutako zenbait urbanizazio-kuota, zeinak ezin izanen baitira berreskuratu: 373.381 euro egiten dute.

Gure gomendioak:

- *Sozietateak jarduteko plan bat egitea, zeren eta ustiaketaren emaitza negatiboa izan baita. Diru-sarrerak eta gastuak direla eta aurreikusten den bilakaerari erreparatuta, ez da aurreikusten epe laburrean joera-aldaketarik egonen denik.*
- *Erripagaña Desarrollo Urbano SLren kontuak Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen kontuekin bateratuta aurkeztea, zeren eta azken hori Erripagañaren akzioen ehuneko 51ren jabea baita.*

IV.13. RIPABERRI DESARROLLO URBANO SL (LIKIDAZIOAN)

2008ko ekainaren 17an eratu zen Burlatan, Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legeari jarraituz. Haren helbide soziala eta fiskala Burlatako udaletxean bertan daude, eta Nafarroako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago.

Kapital soziala 3.100 eurokoa da. 3.100 partaidetza ditu, honela banatuta daudenak:

- 1.581 partaidetza Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen jabetzakoak dira: kapital sozialaren ehuneko 51 dira.
- 1.519 partaidetza Nasipa SLrenak dira: kapital sozialaren ehuneko 49 dira.

Sozietatearen xede soziala da Burlatako udalerrian higiezinak erosi, saldu, administratu, ustiatu, aprobetxatu eta erabiltzea, dela zuzenean, dela errentamendu bidez edo zuzenbidean balioduna den beste edozein moduz, edozein dela ere haien zertarakoa edo erabilera. Obrak norberaren edo besteren kontura egitea; higiezin-izaerako gisa guztietako eragiketak egitea. Gisa guztietako orube, lursail eta finkak erosi, saldu, alokatu, zatitu eta urbanizatzea, eta haietan eraikinak egin eta besterentzea, guztiz, partzialki nahiz jabetza horizontaleko araubidean.

Bereziki, sozietateak jarduera nagusi gisa du Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan (B.2.1 lursailetik B.2.4 lursailera).

Ripaberri Desarrollo Urbano, SLk babes ofizialeko 48 etxebizitza eta prezio tasatuko 158 etxebizitza eraiki ditu. Guztiak, 13 izan ezik, 2011n egin dira, eta 2,12 milioi euroko emaitza azaleratu dute. Nafarroako kontratazio atariak, 2008ko azaroan, haien lizitazio-iragarkia argitaratu zuen, 20 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZa kenduta); Ripaberriren bazkide pribatua (Nasipa SL) kontratuaren esleipen-hartzaile suertatu zen 2009an, 19,98 milioi euroko zenbatekoarekin (BEZa kenduta). Aurkeztutako eskaintza bakarra izan zen.

Kontuen oroitidazkiak dio sozietatea, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraituz, sozietate-talde bateko kidea dela, non sozietate nagusia Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL baita. Azken sozietate horren helbide soziala Burlatan (Nafarroa) dago, eta ez du urteko kontu bateraturik egiten, zeren eta halako egoera-orri finantzariorik egitetik salbuetsita baitago, merkataritzari buruzko legedi indardunaren arabera.

2015ean, 181.837 euroko ondare garbi positiboa dauka; 2014an, berriz, 35.655 euroko ondare garbi negatiboa zeukan. 2015ean 563.278 euroko gastuak izan ditu, guztira; horietatik, 559.844 euro 2015ean saldutako etxebizitzaren izakinetan gertatutako bajari dagozkio. Sozietate horrek ez du langilerik.

Haren diru-sarrerak 794.873 eurokoak dira, eta kopuru hori guztia etxebizitzaren salmentatik etorri da.

2015eko ekitaldiaren emaitzak 217.492 euroko mozkina eman du; 2014an, berriz, 140.494 euroko galerak izan zituen. Ustiaketaren emaitza ere positiboa da: 230.348 euroko mozkina eman du; 2014an, berriz, 115.120 euroko galerak eman zituen.

Sozietate hori, zeinaren kontuak enpresa pribatu batek kudeatu baititu, desagiten ari da. Iritzia aldeko da, azpimarra-lerrokada batekin, zeinak ez baitu inplikatzeko iritzian salbuespenik sartzea. Arreta jartzen da oroitidazkiaren 2. oharrean, non aipatzen baita 2014ko maiatzaren 6ko Bazkideen Batzar Orokorrak konpainia desagitea erabaki zuela. Horrenbestez, jo dugu aplikaezina dela funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa, eta aktibo eta pasibo guztiak baloratu dira balio likidagarriak daitekeen balioespen onena izan dezan.

IV.14. ERRIPAGAÑA DESARROLLO URBANO, S.L.

2010eko martxoaren 18an, Erripagaña Desarrollo Urbano SL sozietatea eratu zen.

Kapital soziala 3.100 eurokoa da. 3.100 partaidetza ditu, honela banatuta daudenak:

- 1.581 partaidetza Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatearen jabetzakoak dira: kapital sozialaren ehuneko 51 dira.
- 1.519 partaidetza Nasipa SLrenak dira: kapital sozialaren ehuneko 49 dira.

Sozietate-xedea, besteak beste, edozein izaeratako orubeak, lursailak eta finkak erosi, saldu, administratu eta urbanizatzea da, eta batez ere, Burlatako udalerrian etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, Erripagaña udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan.

Erripagaña Desarrollo Urbano, S.L. hasia zen babes ofizialeko 267 etxebizitza eraikitzen. Horretarako, Nafarroako kontratazio atariak, 2010eko uztailaren 8an, haiek eraikitzeke obren lizitazio-iragarkia argitaratu zuen, 23,86 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZa kenduta); prozesu horretara hiru eskaintza aurkeztu ziren, eta Nasipa SL sozietatearen bazkide pribatua gertatu zen esleipen-hartzaile. Esleipenaren zenbatekoa 19,08 milioi eurokoa da, ehuneko 37ko bajarekin.

Sozietatea, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraituz, sozietate-talde bateko kidea da, non sozietate nagusia Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL baita. Azken sozietate horren helbide soziala Burlatan (Nafarroa) dago, eta ez du urteko kontu bateraturik egiten, zeren eta halako egoera-horri finantzari egitetik salbuesita baitago, merkataritzari buruzko legedi indardunaren arabera.

Erripagaña Desarrollo Urbano SLk, zeinak langilerik ez baitu, 2015ean 371.031 euroko ondare garbia izan du —2014an 399.735 eurokoa izan zuen—, eta 369.471 euroko maniobra-funts positiboa —2014an, 841.201 euroko maniobra-funts positiboa izan zuen—.

2015ean 1.162.858 eurokoak izan dira. Horietatik, 990.499 milioi euro etxebizitzan salmentari dagozkie, eta etxebizitza horiei dagokion 887.147 euroko kopuruari baja eman zaio.

Ustiaketaren emaitzak 2015ean 38.916 euroko emaitza positiboa ematen du; 2014an, berriz, 516.572 eurokoa izan zen. 2015eko ekitaldiaren emaitzak 28.704 euroko galerak eman ditu; 2014an, berriz, 309.200 euroko mozkinak eman zituen.

Erripagaña sozietatearen 2015eko urteko kontuak, kanpoko auditoreek egindako auditoria finantzarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzian honako salbuespen hau jaso da: "Sozietateak 2014ko ekitaldiaren itxieran bere produktu amaituak baloratu ditu, eta 172.360 euroko andeatzea aplikatu du; horrek izakinen amaierako zenbatekoaren ehuneko 15eko andeatzea egiten du. Sozietateak ez du baliabiderik izakinen andeatzea objektiboki baloratzeko; hori dela eta, ezin izan dut egiaztatu erantsitako egoera-balantzean haiei esleitutako balorazioaren arrazoizkotasuna, ez eta erantsitako galeren eta irabazien kontuan erregistratutako produktu amaituen izakinen gutxitzean izan duen eragina ere". 2015eko ekitaldiaren amaieran, sozietateak bere produktu amaituak baloratu ditu, eta jo du ez dela narriadurarik izan. Hasierako izakinen balioak eragiketen emaitzaren zehaztapenean eragina duenez izakinen aldaketaren bitartez, ezin izan dugu zehaztu beharrezkoa izanen ote zen doikuntzarik egitea eragiketen emaitzan eta hasierako erreserbetan".

Horri dagokionez, gogoratu beharra dago 2013ko ekitaldiko kontuetako Erripagaña kontuen auditoria-txostenean salbuespen bat zegoela izakinen kontu-sail berari buruz; orduko andeatzea, ordea, 512.088 eurokoa zen.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko abenduaren 28an.

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

